


**Erreportaia** Jokin Oregiren antzerki lan berria  
**Sutondoaren epelean** Jauregi DV Torneoaren finalean

# Erreportaia

SORALUZEKO  
HAMABOSTEKARIA  
123. alea, 2005eko  
abenduaren 9an

A man with a goatee, wearing a red sweater and a striped scarf, is smiling while cooking in a kitchen. He is holding a large aluminum pan filled with a dark, chunky mixture on a stove. In the background, there are shelves with various items, including a bottle of 'Siglo' Rioja wine and some food. A plate with a red sauce and some food is visible in the foreground.

*San Andresen,  
finala prestatzen*



Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean



**GOL** industriak S.A.  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
**20590 SORALUZE**



**RIP**  
Punkaren 25 Urteko Historia Bizia  
DVD/ CD



**MAL DE OJO**  
Topa kalabera  
CD



**AREAN**  
Higakorra  
CD



**EHUNGARRENEAN HAMAIKA**  
Lauaxeta 2005  
CD



**BIDEBAT**  
Iluntzean  
CD




**ITOIZ**  
Hari xingle bat  
Jon Eskisabel



**RAMONES**  
Familia Maitagarria  
Gotzon Hermosilla



**THE CLASH**  
Punk, Rock'n'Roll  
and Reggae Matxinada  
Paddy Rekalde



**PUBLIC ENEMY**  
Beltzegi Indartsuegi  
Asier Leoz



[www.hotsak.com](http://www.hotsak.com)



ROKE AKIZU

# Galderak eta prisak

Erregetxeko aparkalekuak egiteko erabakia hartuta dago. Aparkalekuak lur azpikoak izango dira eta, gutxi gora behera, bikoiztu egingo dituzte gaur egun dauden tokiak. Bestalde, aparkalekuen gainean proiektatuta dagoen parkea egiteko behar den finantziarioa, Izartu programaren barnean egingo da, hau da, epe batzuk errespetatuz finantziarioa ez galtzeko (gehiegi laburtuz agian). Aparka-

leku guztiak pribatuak izango dira, eraikuntzaren kosteak eta mantentze lanak 50 urtetan enpresa pribatu batek hartuko baititu. Udaletxeak ez omen du azpiegitura hau egiteko dirurik.

Eta orain datoz galderak:

- Nola erabiltzen da gaur egun Erregetxeko aparkalekua? Itxuraz, txandatzeko sistema nagusitzen da egunez. Ba al dakigu zein ordutan eta zenbat aparkaleku bihurtzen diren finko?
- Ez al dute balio gure inguru hurbileko adibideak? Eibar, Mutriku (antzeko tamaina duen herria) ... Herri hauetako parkinetan aparkaleku libre nahiz pribatuak aurki ditzakegu.
- Ezin al da enpresarekin beste tratua batera iritsi, aparkalekuen kopuru bat (daudenak gutxienez) publikoak izateko eta denboraren arabera ordaintzeko?
- Aztertu al da nolakoa izango zen finantziarioa denboraren arabera ordaintzeko bidez?
- Eraikuntza enpresak al dira udal finantziarioaren ardatza, jakinda euren interesak eta herritarrarenak ez dutela zertan bat egin behar?

Nire ustetaz, galdera hauei erantzun eta datu zehatzak eman gabe, ez dago frogatzerik aparkaleku pribatuen abantaila, adabaki txiki bat ez bada. Beste modu batera esanda, 70 aparkaleku berri sortzen dira baina guztira 140-k txandatzeko aukera galtzen dute. Aparkaleku pribatu baten jabeak denbora osoan okupatzen du toki hori nahiz lanean nahiz oporretan egon. Bere aparkalekutik kanpo aparkatuz gero, Udaltzaingoaren isuna 600 eurokoa izatea proposatzen dut, aparkaleku publikoak finantziatzeko.

Kotxe eta aparkalekuen arteko dikotomia hori konponezina da epe motzean, baina partxeak jartzekotan, hauek datu zehatzetan eta herri barneko mugikortasuna kontutan hartuta jarri beharko lirarteke. Horretarako, oinarrizkoa ikusten dut herri gunean, aparkaleku publiko eta txandatzeko bat izatea, batez ere kanpotik datozenentzako (hiletak, jaiak, azokak, etab.) eta herriko dendetan erosketak errazteko. Denok eduki genuen aukera Gaztañerre eguneko zirkulazio kaosa pairatzeko, bada imajina ezazue egoera horretan hainbat hilabete pasatzea. Benetan ez dudala jasagarritasuna inondik inora ikusten.

## Telegrapak

Kaixo irakurle. **Stop.** Andoni (hala deitzen dotse San Andres soziedadian) jarri dogu portadana. **Stop.** merezi dau. **Stop.** hori bai tipua hori!. **Stop.** bada-kixe San Andres soziedadekuak jainko txiki bat dala. **Stop.** baina lurtarra. **Stop.** mahaixan parez pare elkarrizketa eta bertso edar askuak eskeintzen dittuana. **Stop.** ia zorte pixkat daukan etara berak baino hobeto kantatzen daben batenbategen finalian. **Stop.** BEC-erako autobusa ixa konpleto dago. **Stop.** gaiz aldatuta. **Stop.** Jokin-en antzerki lanaren berri be emon dogu. **Stop.** ia oin batenbat animatzen garan ikustera. **Stop.** ze antzerkixa egittia modan dago baina antzerkixa jua-tia ez horrenbeste. **Stop.** eta gainera Jaurilaritzatik dirulaguntzak karidade moduan banatzen diranez. **Stop.** atzo bai eta bihar ez. **Stop.** euskal produktuek ez dauke oso errez aurrrera egittia. **Stop.** Gure Irratia be hor dabil ezinian. **Stop.** eta laguntzia nahi dotsanak badauka zela egin. **Stop.** eta Ci-berlekuko jabiari be batenbategen esan biharko dotsa Soralu-ce kooperatibia dala. **Stop.** eta gure herrixak Soraluze daukala izena. **Stop.** beti berdin!. **Stop.** eskerrak beti geratuko jakun Durango!



### Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.  
Telefonia 943 75 13 04  
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU  
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

### Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno  
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,  
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka  
Salaberria eta Egoitz Unamuno

### Publizitatea:

Ugaitz Catalan  
Logotipoa: Jon Gabilondo  
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale  
Inprimategia: Gertu Koop.  
Diseinua eta Maketazioa: Maku Oruezeabal  
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen  
aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza  
jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA

## ERREPORTAIA

Azaroaren 10ean estreinatu zen Santurtzin "Ez in dut egia esan", Jokin Oregi plazentziatarrak idatzi eta zuzendutako antzezlan berria.



## Zorion agurrak



**Naiara Pombar**

Abenduaren 25ian  
**Zorionak neskatxo!**  
Asko maitte zaittugu!  
Musuak etxekuen partetik!



**Elia Ramos**

Abenduaren 6xan  
6 urte  
**Zorionak!**  
Koke eta etxekuen partetik.



**Sandra Labrador**

Abenduaren 2xan  
14 urte  
**Zorionak!**  
Koke eta etxekuen partetik.



**Aurkene Lopez de Calle Astigarraga**

Abenduaren 8xan 2 urte  
**Zorionak!**  
Aita eta amaren partetik  
muxu handi bat!



**Jon Agirre**

Abenduaren 5ian  
26 urte  
**Segi beti bezain jator!**  
**Zorionak etxekuen partetik!**



**Ianire Makinai Milan**

Abenduaren 16xan  
7 urte  
**Zorionak potxola!**  
Segi holaxe eta gurasoen eta Izarren  
partetik muxu handi bat!

## Gutunak

### EHNA; gure nortasuna poltsikoan

Munduko herrien aniztasunak osaturiko ortzadarra dugu gizon-emakumeon historia. Norberaren izate eta horren adierazte libreaken aukeran aurkitzen dugu elkarbizitzaren edertasuna. Bakoitzak jaoitzez jaso, beharrak eraginda edota borondatez hautatutako kokapena-aitortza ezinbestekoa dugu eskubideen jabe den herritar gisa bizi ahal izateko.

Herri aske bateko partaide izatea horren bermea bada ere, bere jaioterriatik alde egin beharra inposatu zaielako edota aintzakotzat hartuak ere ez diren herriatiko kide direlako, gizon-emakume asko eta askori ukatzen zaie herritar izateko eskubidea bera ere.

Gu ere herri ukatu horietako baten kide gara. Euskaldunak gara, Euskal Herriko herritarrak. Eta hor bizi-aritu nahi dugu.

Euskaldunok etengabe pairatzen dugu nazionalitate ezabaketa hori. Gure etxean bertan "sans papiers" hutsak gara. Euskaldunok eguneroko ogia dugu erabakitzeke ahalmen horren ukazioa.

Gure izena eta izana ukatzeaz gain espainiar edota frantses izatera behartu nahi gaituzte.

Baina jai dute!. Beti esan dugu gu zer ez garen. Esan eta izan. Orain gure naziotasuna adierazten, aitortzen eta zabaltzen duen tresna indartsu bat martxan dago: Euskal Herriko Nazio-tasun Aitormena (EHNA).

Jadanik milaka lagunek dugu EHNA gure eskuetan. Eta ziur gaude soka luzatzen joango dela. Oraina erikiz lortuko dugu etorkizuna gure eskuetan egotea.

Abenduan zehar, tramitazio egunak bultzatuko ditu Udalbiltzak Euskal Herri luze zabalean. Gure herrian, Sorluzen, Abenduaren 17an EHNA esku-ratzea nahi duten guztiak aukera ezin hobea izango dute egun osoan zehar.

Beraz... animatu! EHNA EGIN euskal herritarrak garelako!

Herritar libre bezela, BIZI GAITEZEN EHNAREKIN!

**Sorluzeko BAI EUSKAL HERRIARI**

### Euskaldunak eta Dante

Dante eta euskaldunok.- Badira musulmanen artean integristak direnak zeintzuek, Dantek Mahoma infernuanipini zuelako, Florentzian dagoen haren tunba ezandaraziko luketenak. Guk, euskaldunok, badugu ere auzia poeta harekin, zeren nafar bat ere ipinibaitzuen infernuan. Baina gure erantzuna honelakoa izan daiteke: du-

da barik Dante poeten Parnasoan dago, handienen artean, baina, oso ondo in-fomatuta bazegoen ere, haren fama ez da santu batena, eta bai poeta handi batena, eta beraz, ez da kanonigoa harek idatzitakoa. Oso ondo informatuta bazegoen ere.

**Roman Garmendia**



Informazio gehiago  
900 110 111 doako telefonoan  
www.gipuzkoa.net/gazteria  
Buletinen harpidetza !!!

## Lana

### Arkitekto tekniko bat

Errenteriako Udala. Errenteriako Udalean Arkitekto Tekniko bat kontratatzeko oposizio-lehiaketa. Kanporaketa-ariketak gainditu arren, deitutako lanpostuen kopurua baino gehiago izateagatik kanporan geratzen diren izangaien zerrenda Udaleko lanpostu berdinetan edo antzekoetan sortutako premiei erantzuteko erabiliko da. **Epea:** 2005-12-14. **Telefonoa:** 943 44 96 00.

## Lehiaketa

### XIX. Jokin Zaitegi Itzulpen-saria

AED Elkarte (Arrasate Euskaldun Dezagun Elkarte); Elkar Argitaletxea. 3.000,00 euro. Sari honen helburua da 2005eko Novel Literatura Sariaren, Harold Pinter-en, The Lover eleberria itzultzea. **Epea:** 2005-12-31. **Tel.:** 943 31 02 67 / 943 77 12 28.

## Bekak

### Ikerketarako Laguntzak:

#### Kontserbazio-biologia

BBVA Fundazioa.

- Dokore titulua izatea.
- Egoitza Espainian duen unibertsitate erakunde bati edo ikerketak-erakunde publiko bati atxikita egotea.
- Deialdiak xede dituen esparruetan esperientzia ikertzailea izatea, Zuzendaritzak abalatu, edo erakunde ezagunek finantzatu dituzten, argitalpen zientifikoak eragin dituzten - batez ere nazioartekoak - eta ikuskatuak izan diren ikerketa-proiektuetan parte hartua izatea. 3 urteko iraupena. 200.000,00 euro gehienez proiektu bakoitzeko. **Epea:** 2006-01-31. **Tel.:** 902 22 44 66.

### Hildakoak

BASILISA BERRAONDO MAIZ  
EZEKIEL ZUBIZARRETA URIZAR

### Jaiotakoak

SERGIO BOUZAS RODRIGUEZ

Abenduaren 7tik 11ra bitartean Liburu eta Diskoen Azoka Durangon. Urtero moduan milaka euskalzale hurbilduko dira Euskal Herri osotik.

# Durangoko azokara juaten zara?



**Naiara Beretxinaga**  
25 urte, administratzailea

Bai, urtero juaten naiz lagunekin. Euskarazko produktuak ezagutzera emateko lekua da, indartsu dago eta beti erosten dot zeezer. Gero batzutan parrandan begeratzen gara.



**Elixabete Labaien**  
67 urte, etxeoandria

Ez naiz sekula juan. Gustauko litzaidake juatia behin. Baina hainbeste jente egoten dala esaten dabe... nik irakurtzeko eta musikia entzuteko ohituria badaukat, euskarazkoa bebai.



**M<sup>a</sup> Antonia Txurruka**  
55 urte, administratzailea

Len juaten nintzan baina azkenaldixan ez. Aurten igual juango naiz. Imanol Urbietan azkenengo kantu bildumia erosiko neuke; Xixupika. Txarrena da jente asko egoten dala. Ordu hona bilau bihar!



**Mitxel Brunza**  
60 urte, jubilatu

Aspaldi ez naizela juan. Len juaten ginan. Nik irakurtzeko ez daukat ohitura haundirik. Oin semia juaten da eta harek ekartzen dosta musika zintarren bat.



**Edu Alvarez**  
29 urte, aparejadoria

Bai aspalditik juaten naiz kuadrilan. Aurten jai daukat eta lehenengo egunian juango naiz. Jente asko ibiltzen da eta denbora gutxi egitten dogu barruan. Komikiren bat erositkot igual eta gero parranda pixkat.



**Oier Oregi**  
25 urte, fisioterapeuta

Urtero juaten gara. Aurten bejuango naiz. Euskal musikako diskuak erosteko asmua daukat: Beniton bildumia... Neuk euskerazko itzulpen tekniko gehixao botatzen dot faltan.



*Disenua eta Sormena*

Poligono Amillaga, n<sup>o</sup> 5

Tlf.: 943 76 99 85

20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak



**HNOS. BENITO ANAIAK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# Kontsumitzaileei zuzendutako erakusketa kiroldegian

Abenduaren 1etik 7ra bitartean Eusko jaurlaritzaren kontsumo sailak prestatutako erakusketa izan da ikusgai kiroldegiko erakusketa gelan. Honen bitartez, Kontsumo sailak herritarren kontsumo arduratsua, kritikoa eta zentzuduna sustatu nahi du. Sarrera gisa, kontsumitzaileen eskubideak eta erreklamazioak egiteko dituzten aukeren berri ematen zen. Ondoren, elikagaien etiketak, eta jantzien eta oinetako en etiketak ondo irakurtzearen garrantziaz ziharduan erakusketak. Derrigorrezko etiketa mota guztiak zeuden ikusgai, bai eta produktu ekologiko, biologiko edo transgenikoenak ere.



## 18/98 epaiketaren aurkako konzentrazioa

Azaroaren 30ean herritar talde bat 18/98 epaiketaren aurka konzentratu zen Plaza Barrian, epaiketa politikoa dela salatuz eta eskubide zibil eta politikoen aldeko eskaera eginez.



## Feo gaztañerreko rallya garaile

Jose Luis Feo Bergararrak irabazi du Gaztañerre egunean Kontrargik antolatutako argazki Rallyea. Bigarren saria Fernando Oregi plazentziatarrak eskuratu du eta herriko sari berezia Mikel Cruzek. Sariak abenduaren 17an emango dira kiroldegian eta argazkiak urtarrilaren 5era arte kiroldegiko erakusketa gelan ikusi ahal izango dira 19:00 etatik 20:30etara bitartean aste barruan eta 12:00etatik 13:30etara bitartean zapatuetan.

# EHNA tramitatzeko eguna abenduaren 17an

Udalbiltzak, Euskal Herriko Nortasun Agiriaren dinamikari bultzada berri bat emateko asmoz, Tramitazio Egun nazional baterako deia luzatu du. Udalbiltzako ordezkariak lau ideia azpimarratu dituzte EHNAREN inguruan: naziotasun eskubideari zor zaion begirunea, agiriaren bitartez egiten

den autobaeztapena, erabilgarritasuna eta konpromisoa, agiria eraginkorra izan dadin. Interesatuek kontzejupera jo beharko dute abenduaren 17an, larunbata, goizeko 11etatik 2ak arte edo arratsaldeko 7etatik 9etara, eta 3 argazki, padroia eta 15 euro eraman beharko dituzte.

## A G E N D A

### EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA

#### • Finala Bilbon BEC-en

Abenduaren 18an, 11etan eta 16:30ean, autobusa Soraluzetik.

*Irteera:* 9etan Gila Zubitik

*Itzulera:* saioa amaitutakoan

*Janaria:* bakoitzak etetik eramandakoa (ez ahaztu hamarretakoa)

*Antolatzailea:* Ibilixan Ibilixan Bertso Eskolia

### HITZALDIAK

#### • Abenduaren 12an, astelehena

"L@s pres@s de Action Directe" Ermuako Eskilarapeko Ateneoan 19:30etan

#### • Abenduaren 14an, eguaztena

"Del MIL a los Grupos Autónomos" Soraluzeko Gaztetxean 19:30etan (17an PITO KARMONA 19:00etan)

#### • Abenduaren 15ean, eguena

"COPEL, la lucha en las cárceles en los 70" Eibarko Tallarra Gaztetxean 19:30etan

#### • Abenduaren 16an, barixakua

19:00etan "Komando Autonomo Antikapitalistak". Ondoren afari-merienda.

22:00etan PITO KARKOMA kantautorea Elgoibarko Lerun Txiki baserri okupatuan.



**EDURTZA kafetegia**  
Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko menua eta pintxoak**


**Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze**



**PASCUAL CHURRUCA, S.A.**

Hotzian eta beruan jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruca.com](mailto:general@pascualchurruca.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



**70 ZMKO AINGIRA IBAIAN.** Argazkia Jokin Etxanizek bidali digu. Abuztuaren 30ean bizi-bizi omen zebilen argazkiko aingira ibaian, goseak antza. Urak garbi zetozen egun hartan. Handik bi egunera, ibaia zikin zetorren eta aingira hilda azaldu zen. 71zmko luzera eta 5 zm terdiko zabalera zeukan.

## Udalak bi lanpostu berri sortzeko erabakia hartu du

Azaroaren 28an egin zen Udalbatzarrean hartu zuen Udalak bi lanpostu berri sortzeko erabakia. Bata administrari lanpostua izango da eta bestea kirol arduradunare-

na. Biak ere lanaldi osoko lanpostuak izango dira, oposizio lehiaketara bitartez esleituko direnak. Orain lehiaketarako oinarriak eta deialdia prestatuko ditu Udalak.

## Euskarazko aldizkarien salaketa Jaurlaritzari



Euskararen Egunaren bezperan, abenduaren 2an, Euskarazko hain-

bat hedabidek, euren artean Pil-pilean, Jaurlaritzaren dirulaguntzetan izandako jeitsiera salatu zuten. Pil-pileanek esaterako %30 inguruko jeitsiera izan du eta 6.000 euro jasotetik 4.000 euro jasotzera pasatuko da aurtan. Azaroan egin du Jaurlaritzak zenbatekoaren jakinarazpena baina hedabideek oraindik ez dakite 2005eko dirulaguntza hori noiz jasoko duten ere. Urtero errepikatzen da egoera bera.

## Ziberleku berria Soraluzen

Azaroaren 24an Ciber Zon@ Sor@luze ziberleku berria ireki zen Rabal kalean, lehen Amutxastegiñeko etxeak ziren erai-kiñean. Ciber Network taldeak inguruko herri guztietan ireki ditu horrelako dendak. Ordena-



gailuetan lanak egiteko, interneten nabigatzeko edo jolas egiteko aukera eskeintzen da ziberleku berrian; freskagarriak eta litxarrerriak ere saltzen dituzte. Orain arte gaztetxoek dira gehien hurbildu direnak.

## Matxismoaren kontrako konzentrazioa



Azaroaren 25ean elgarretartzea egin zen Plaza Barrian emakumezkoen aurkako bortizkeria salatzen, "Matxismoak hiltzen gaitu, erasorik ez erantzunik gabe" lemapean.

Javier Alonso Zelaia  
K. Z. 20.000.434  
Nora Bastida Etxeberria  
K. Z. 20.000.736

**HORTZ KLINIKA**  
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81

# Amodio eta desamodioa Jokin Oregiren lan berrian

Azaroaren 10ean estreinatu zen Santurtzin "Ezin dut egia esan", Jokin Oregi plazentziatarrak idatzi eta zuzendutako antzezlan berria. Bere azkenengo lanak –"Jim altxorraren uhartean" eta "Robin eta Hood"–

gauzatu ostean, helduei zuzendutako maitasun historio hau idatzi zuen Jokinek. "Jim altxorraren uhartean bukatu berrittan, arratsalde batzuk libre nekazen eta idazten hasi nitzan. Ordurako Brastakuan urten zostan, kolpian. Serantes sarixetara auerkeztu eta accesita lortu neban. Hori bultzakada haundixa izan zan."



## PERTSONAIK

**Mikel (Patxo Telleria):** Luziak bizi dan itzultzaile bat. Apala da, arrantzan egitea maite du. Bere tragedia: Luzian lagun batekin maiteminduta bizi da, Inesekin.

**Luzia (Tessa Andonegi):** Mikelen emaztea. Margolaria. Margotzeari utzi zion, ez dakigu zegaitik, baina obran zehar jakiten da. Lur jota dabil, nahiz eta piztuko dan.

**Koldo (Eneko Olasagasti):** Arte ederretako irakaslea, haundiustea, elitista, konplejo asko dituen eta gainbehera datorrena.

**Ines (Reyes Molerres):** Koldoren emaztea eta Luziaren laguna. Pertsona bizia, muturrekoa, erakargarria, interesantia, eta alaia. Luziak ez dituen ezaugarri guztiak ditu.

## MAITASUNAREN GARRANTZIAZ

Horrela irakurrita, maitasun historio endredatu bat eman dezake, besterik gabe, baina lan hontan Jokin maitasunaren eta sentimenduen gaineko gogoeta sakonak azaltzen dira. "Maitasun historia da baiña desamodiotik gehiago du.

Oso gaitza da egunaz hitzegitea gaua zer den ez badakigu. Ezin da osasuna baloratu gaixotasuna eza gutzen ez bada. Historia honetako protagonistak insatisfakzio bat dauke maitasunari dagokionez".

Maitasunaren garrantzia azpimarratzen saiatu da Jokin obra honetan, bizitzako motorra horixe baita bere esanetan.

"Lana inportantia da, baina maitasunak moduan ez gaitu ezerk deskilibratzen. Bakoitzak bere erara bilatzen dau, baina danok bihar dogu."



Zenbait esaldi potolo botatzen dira gai honen inguruan. "maitasuna=sexua? Galdetzen du momentu jakin baten pertsonaietako batek. Beste momentu baten hola diño neskiak: en fin, bizitza honetan ez dago nahi adina egiterik. Alegia, tokau jakuzen kartekin jokatu biharrira onartzia gaitza dala. Danok dakagu burruka hori eta publikoa identifikatuta sentzitzen da pertsonaia batekin ez bada bestiak.

## BI PLANO: DESIOA ETA ERREALITATEA

Bi plano desberdinetan dator berezia obra, desioaren eta errealitatearen planoan." Protagonistak imajinatzen dabena dago alde batetik eta bizi dabena bestetik. Horrek urruntzen du istorioa kulebroi txar-



bien arteko komunikazioa erretzen duelako"

Momentuz, erosoan zuzendari-egile lan hortan ari dela esan digu.

"Aktore lana ez dot laga, baina baztertuta dakat pixkat. Zuzendari-egile izan nahi horretan dihardut.". Lan honetan ofizioak daukan garrantzia azpimarratu digu: Edozein arte erakustaldi egin aurretik zera galdetu behar diogu gure buruari: Badakazu ezer kontatzeko? Bestela ixildu. Hori lehenengo gauzia eta bigarrena: zela heldu eragin publikuari esateko dakazuna? Hor ofiziuua sartzen da. Publikua interesatu egin bihar da esaten dozunakin eta horretarako dramaturgiaren gakoak ezagutu bihar dira. Ekilibrio emozionalaz ez badakizu ezer oso gaitza da jentia gana heltzia. Oindiok ikas-



rretatik. Joko bat planteatzen jako publikoari, puzzle antzeko bat, eta azkenengo eszenan bakarrik lortu ahal izango dau puzzlia osatzia."

Obraren izenburuari dagokionez, (ezin dut egisa esan), hauxe esan digu: "danak ez dira esaten, hortik obraren izena, baina dana geratzen da garbi. Horrek publikua adi egotia eskatzen dau. Jentia harrিতuta urten dau antzerkixa ikustetik, eta hori ona da. Hunkigarria eta fiña dala diñue.

## ZUZENDARI ETA EGILE LANA

Zuzendari eta egile lanak, biak

egitea egokitu zaio lan honetan. Alderdi biak ditu Jokinen ustez aldi berean zuzendari eta egile izateak" Ona da egilea eta zuzendaria pertsona desberdinak izatea zuzendariak testuarekiko distantzia hartzen duelako eta horrek azken emaitza hobetu leikelako. Zuzendaria oso ona bada, hori baino gehiago egin dezake: autorearen okerrak zuzendu ere bai. Eta zuzendaria oso txarra bada alderantzizkoa: autorearen aziertuak okertu. Bestalde, ona da zuzendaria eta egilea pertsona bera izatea

ten nabil, irakasle honekin, baina bidia hori da. Antzerkixa konpartitze bat da, egile, zuzendari, aktore eta publikuan artekoa; bestela ez daka zentzurik.

## AGENDA

- **Abenduaren 16an** Galdakaon euskeraz
- **Otsailak 10** Beasainen euskeraz
- **Otsailak 17** euskeraz Basaurin

Honek baiño lehenago be agertuko dira beste batzuk, Zornotza, Gasteiz... suerte pixkatekin otsailian edo martxuan Eibarren.



Barra kargadore automatikoak eta makina bereziak

## ETXEHUN, S.A.L.

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: [etxehun@teletel.es](mailto:etxehun@teletel.es)

[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

## Mendata taberna



**Berezitasunak:**  
Txipiroiak, Barazki Menestra, Gixauak...  
Asteburuan plater konbinatuak  
Enkarguak etxerako  
( bazkariak eta afariak )

Kalebarren, 5  
Tfnoa 943 75 13 87

# Gaztelupeko Hotsak Durangon beste urte batez

Beste urte batez, Gaztelupeko hotsak disketxeak postua izango du Durangoko azokan. Aurten zazpi mahai jarriko dituzte, 6 diskoak saltzeko eta bat literaturari eskeinia. Disketxetik adierazi digutenez, **RIP en DVDa eta Lauaxetari eskeinitako Ehungarrenean 11 kd-a** dira eurek gehien saltzea espero duten produktuak. Bestelako nobedadeen artean, oraintsu argitaratu diren talde hauen diskoak izango dira salgai: Mal de Ojo, Bide bat, Señor No, Piztiak, Arima Beltza, Desoreka, Xabaltx, 3000 Hombres, Asstrio, Victor de Diego



Group, eta Miren Aranburu Ensenblerenak besteak beste.

## Itoiz, Ramones, Public Enemy eta The clash

Liburuei dagokienez, aurtengo nobedadea Bosgarren haria bilduma izango da, musika taldeei buruzko liburuen argitalpena, horrela euskal literatura gai honen inguruan zegoen hutsune bat beteaz.

**Badihardugu** euskera elkarteak Deba Ibarra osatzen duten 17 herrietako berbetak jasotzen dituen mapa jarriko du salgai aurtengo azokan, orain arte eskualdean egindako bilketa lanak kontuan hartuta.

## 80 urtetik gorakoen bazkaria

Azaroaren 26an 80 urtetik gorakoen urteroko bazkaria egin zen jubilau-etxean. Danera, 50 lagun elkartu ziren; adinekoena Obe basarriko Bernardo Maiztegi, 88 urterekin.



## Fadistak Elgoibarren

Herriko fadista hirukoteak (Domentx Uzin, Arianne Unamuno eta Ane Ugalde) kapillako kontzertu arrakastatsua Elgoibarko Musika Eskolan errepikatuko dute abenduaren 22an atsaldeko 8etan.

**GAZTEEN SORMENA ETA EKOIZPEN ARTISTIKOA SUSTATZEKO LEHIAKETA**

**2005**

**EUSKAL HERRIKO I. IKUS-ENTZUNEZKOEN RALIYA**

Eibar, abenduak 17

Lehiaketaren oinarriak: [www.topagunea.org](http://www.topagunea.org)

**Antolatzaileak**

**TOPAGUNEa**  
EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA

**eta kitto!**  
Euskara Ekarpena

**Babesleak**

**ELUSKO JAURLARITZA**   **GOBIERNO VASCO**

**Ciudad Real**  
Ayuntamiento de Ciudad Real

**Ciudad de Plasencia**  
Ayuntamiento de Plasencia

**Ciudad de Salamanca**  
Ayuntamiento de Salamanca

**Ciudad de Zamora**  
Ayuntamiento de Zamora

**Diputación Foral de Álava**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Bizkaia**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Gipuzkoa**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Nafarroa**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de La Rioja**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Cantabria**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Aragón**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Castilla-La Mancha**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Extremadura**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Castilla y León**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Galicia**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Asturias**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Madrid**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Cataluña**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Valencia**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Murcia**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Andalucía**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Aragón**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Castilla-La Mancha**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Castilla y León**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Galicia**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Asturias**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Madrid**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Cataluña**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Valencia**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Murcia**  
Departamento de Cultura

**Diputación Foral de Andalucía**  
Departamento de Cultura

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g      Tf: 943752150  
138 Postakutxa      Faxe: 943752118

**SORALUZE**

**SAN ANDRES**  
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak*  
*Sukaldeak eta bainuak*

Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

**Kontulan Aholkularitza S.L.**

**Enpresa aholkularitza**  
**Jabe Elkarteak**  
**Aseguruak**

Santa Ana, 13 - 1 ezk.      20590 Sorluze  
Tlfonoa: 943 75 17 82      GIPUZKOA

**GILA TABERNA**

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

**Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!**

Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

*Iñaki Jauregi pelotari gaztea dotore ari da jokatzeko denboraldi honetan. Emaitzek horrela erakusten dute: buruzburukoan "Josean Tolosa" txapelketako finalera iristea lortu zuen eta binakako txapelketetan aurrean ibili da beti. Joan den astean Getxoko txapelketa irabazi zuen, eta abenduaren 6an DV torneoko finalerako txartela lortu. 18an jokatuko da finala, Zarautzen.*



Iñaki Jauregi, pelotari plazentziarra.

# Iñaki Jauregi PELOTARIA

## Zela doia denboraldia?

DV torneua eta Elgoibarrekuakin amaittuko da; gabonetan opor txiki batzuk eukiko dittugu. Gero berriz preparatzen hasi bihar. Udia izaten da guretako sasoirik gogorrena. Ekainian, Uztailian eta Abuztuan 40 bat partidu jokatu nittuan. Urtian zihar ondo bazabiz udan leku askotatik diar egiten dotsue batian edo bestian jokatzeke.

## Zela hasi ziañan Añorgako pelota taldiakin?

Kiroldegixa itxi zebeñian ni Hernaniko batekin nenbilen jokatzeko, eta harek esan zoztan: "zegaittik ez zatoz Añorgako klubera?" Bertara juten hasi nitzan eta gustau egin jatan. Oso ondo konpontzen naiz eurekin.

## Entrenatzeko zela konpontzen zara?

Astelehenetan Donostiara juaten naiz, Atano frontoira eta asteazketan Bergan entrenatzen dot Reyesekin. Fisikua nere kontura lant-

zen dot Eibarko kiroldegixan, Bergako lagun baten agindutara.

## Ze ezaugarri dakazu pelotari moduan?

Kolpe ona dakat eta ezberra dotoria, hola diñue. Burua, berriz, azkar galtzen dot. Oin hasi naiz ikasten. Lehen jo ta jo egiten neban, oin sartu ta sartu saiatzen naiz egiten.

*Lehen pelotia jo ta jo egiten neban. Oin sartu ta sartu saiatzen naiz egiten*

## Zegaittik urtetzen dabiz azkenengo urtietan hainbeste pelotari plazentzian?

Aurretik egin dan lanagaittik. Lan haundixa egin da urtietan. Ni Pello Arrietakin hasi nitzan, 5 urte neka-zela. Handik urte batera laga egin neban denboraldi batez, eta Pello bila etorri jatan berriz. Ordutik gaur arte frontoietan ibili naiz.

## Interpuebloseko garaipena zela gogoratzen dozu?

Egun oso politta izan zan, hainbeste herritar ikustia frontoian eta gero herrixan. Tristia izan zan harek jarraipenik ez izatia

## Frontoian pasau jatzun anekdotaren bat gogoratzen dozu?

Oin dala gutxi Getxoko finalian 18-6 irabazten juan ostian 18-16 jarri jakuzen aurkarixak. Orduan nere parejiak nahi barik ukabilakin beste aurrelarixa jo zeban buruan. Hurrengo tantuan nik beste atzelarixa jo neban buruan pelotia. Tanto gehixago ez zebeñ egin. 22-17 amaittu zan partidua.

## Ikusiko dogu inoiz Jauregi Laskurainen kontra jokatzeko?

Hori nahiko neuke, Laskurainen kontra debutatzia profesioaletan, baina prisarik ez dakat, gustora nabil nabilen lekuan.

**IÑAKI IÑARRA**  
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze

**ARMENDIA**  
**JATETXEA**

Ezoz Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

**Sukaldaritza tradizionala**

# Olazabal eta Jauregi DV Torneoko finalean

Abenduaren 6an jokatu zen Tolosako Beotibar pilotalekuan aurtengo Diario Vasco torneoko finalerdietako bat. Senior mailan, Olazabal nafarrak (Areso) eta Iñaki Jauregi plazentziatarrek finalerako txartela lortu zuten, Olaetxea-Apraiz bikotearen aurka 22-17 irabazi ostean. Partiduak bi zati izan zituen. Lehenengoan Olazabal eta Jauregik errez hartu zituzten mendean aurkariak, markagailuan 17 eta 3 aurreratuz. Partiduaren bigarren zatian Olazabal eta Jauregi hutsegiten hasi ziren,



ustekabeen, eta aurkariak 17 tanto egin zituzten. Estu, baina azkenean garaipena bikoterik onenarendako. Finala 18an jokatu da Zarautzen.

# Joseba García Euskadiko bigarren bere kategorian



Joseba Garcia auto piloto Plazentziatarra bigarren geratu da bere kategorian Euska diko mendi igoereta-ko auto lasterketa txapelketan. Emaitza hau duela bi aste Jaizkibelgo igoeran lortu zuen postu bikainari esker izan da batez ere. Orduko hartan, Joseba 12. geratu zen 90 parte-hartzailearen artean, lehenengo bere kategorian. Hurrengo lasterketa Arrate igoera izango du, aste santu ostean.

## EMAITZAK

### ESKU PILOTA

#### JAUREGI

##### Gipuzkoako txapelketan

Zabala-Jauregi 22  
Azagirre-Irureta 12

##### Getxoko txapelketan finalerdietan

Olazabal-Jauregi 22  
Mundiñano-Iparragirre 17

##### DV torneoan finalerdietan

Olazabal-Jauregi 22  
Olaetxea-Apraiz 17

#### LASKURAIN

Berasaluzte IX- Zubieta 18  
Larralde- Laskurain 10

#### ATXOTEGI

##### Klub artekoan

Atxotegi-Portu 22  
Agirrezabalaga-Sarasola 9  
Atxotegi-Portu 22  
Iraola-Azketa 12

##### Burladako txapelketan

Atxotegi-Fernandez 22  
Irurita-Urrutia 12

##### Final laurdenetan

Jauregi-Mitxelena 22  
Atxotegi-Fernandez 11

### FUTBOLA

Asteburu hontan ez da partidurik jokatu

#### Azaroaren 28-29 ko emaitzak

Antzuola 2-Sora 2 (erreg.)  
Sora 1- Arrasate 4 (jub.)

## AGENDA

#### Mendi irteera

Abenduak 18an  
Albertia (868 m.). Legutio-Arlaban

**JATETXEA  
TXURRUKA**

SAN IGNACIO AUZOA - TEL. 75 15 81 - SORALUZE

## Begoña Urdaitegia

Hestebete bereziak:

- Iberikoak •
- Pateak •

Hel.: Merkatu Plaza  
Telf.: 943 75 3009

## Juan Mari Arraindegia

**Eguneroko arraina eta konjelatuak**

Merkatu Plaza  
20590 Sorluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69

- Bizkarreko mina
- Esginzeak
- Tendinitisak
- Masajeak
- Erreuma
- Etxeetara fisioterapia
- Istripu ondorengo errehabilitazioa
- Kirol osteko errehabilitazioa

**ORMAZABAL**  
FISIOTERAPIA ZENTROA

Unai Ormazabal Iraola  
Kolegiatu Zenbakia 947

Altos Hornos Industrialdea • Tellería, 6 bis - Of.11 • BERGARA  
Tel. 943 76 53 35 / 626 900 608 • ormazabalfisioterapia@yahoo.es

# Andoni Egaña Makazaga Bertsolaria

Joan zen zapatuan (abendua 5), gaueko 21:00ak aldera iritsi zen Andoni San Andresko soziedadera. Zai zeukan bertan Sebastian. Afaldu eta muxutruk bi ordu inguruko saio miragarri bat eskeini aurretik elkarrizketatu genuen.

**Adina.**

44 urte

**Ikasketak.**

Ofizialak Euskal Filologiakoak.

**Ze balorazio egitten dozu txapelketak orainarte emon dabenez?**

Ikusle aldetik bikoiztu egin da. Pozgarria da. Oso jende gaztea dago publikoan. Bertsolaritzaren etorkizunerako oinarri sendoa dagoela esan nahi du horrek. Ideia bat egiteko, finalurreko saioetan 82ko finalean Donostian batu zen besteko jendetza batu da, 2.000 ikusle inguru.

**Zela bizi dozu txapelketa?**

Arraro. Orain hobeto. Final laurdenak hasi direnetik hobeto. Irailean, txapelketa hasi aurretik Maialen eta ni ginen protagonistak, batere lanik egin gabe. Komunikabideak errezkerian erortzen dira askotan.

*"Ausartzen naiz esatera, orainarteko finaletan maila handienekoa izango dela aurtengoa"*

**Aurten be irabazten badozu zer?**

Gauza batzuk berplanteatu behar nituzke; saioekin ze erritmotan jarraitu, erretzeari utzi... Gaztetxo bat bezela bizi naiz, nagusitan zer egin behar dudan jakin gabe. Bertsolaritza neretzat bizimodu bat da. Txapelduna zarenean bizimodu hori mugaraino eraman behar duzu. Orain urtean 150 bat saio eta 50 bat hitzaldi egiten ditut eta horrez gain beste kontu batzuk. Bertsozale Elkarteak sortu genuenean proiektu bat abiatu genuen eta nik proiektu honetan sinetsi dudalako ari naiz horrela.

**Eta irabazten ez bozu zer?**

Bestela erabaki batzuk hartu behar nituzke eta horrela berez etorriko zaizkit. Etorkizunean nahi nuke ez hain erdigunean egon eta ez hain izar izan. Transgresiorako aukera gehiago izango nuke horrela eta badut horretarako gogoia.

**Ze harreman daukazu Soraluzekin?**

San Andresekin gehiena. Orain 19 urte edo etorri nintzen lehenengoz.

## BERTSO BEGIZ

*Txapelketa dela ta zenbat gora behera, porra ta galdera. Inork ez du alperrik galdu nahi aukera. Nahiz eta ez atera mikroan aurrera Saioz-saio betez frontoiak topera... txapelduna ez al da entzulea bera?*

**NEKO**

*Doinua:  
Asteburu aldera*



Andoni Egaña, San Andres soziedadarian.

Kaleko jaialditan askotan parte hartu dut eta parrandaren bat edo beste ere egin izan dut. Nere gurasoen garaian Plazentzia oso ezaguna zen, jendeak bazekien non zegoen, nik uste bariantea egin zutenetik aurrera aldatu zela hori. Ni aitarekin altzariak ekartzera etortzen nintzen gaztetxotan.

**Sabina ere ezagutzen dozu?**

Bai. 93ko txapelketa zen, finalurreko bat neukan Eibarren. Gaupasa egin nuen eta goizean Nikolas Zendoaiarekin geldituta nengoen. Harek Soraluzera etorri behar zuen bazkaltzera eta berarekin etorri nintzen. Bazkaldu, siesta egin eta Eibarko saiotik finalera sailkatzea

lortu nuen.

**Zer dauka aurtengo finalak?**

6 ordu izango dira, bete beteak. Ausartzen naiz esatera, kalitatez orainarteko finaletan izan den mailarik handienekoa izango dela. Jendetzaz ere bai, 12.000 ikusle izango dira eta.

**Zein da faborito zuretzat?**

2-3 faborito gabe, 6 faborito ikusten ditut nik. Neretzat ere emoziozkoak izango da.

**Len komentatu dabe ointxe daukazu-la txapel preminarik haundixena...**

Ba, ez pentsa, aurtengo negua nahi ongi pasatuko nuke txapelik gabe ere.

## Argazki zaharra



Iturria: Aizpuru.

### Jaiotzarekin limosna eske

**1947** xan jaiotza hartuta kalez kale limosna eske ibili zan neska-mutiko talde bat ageri da. Errekalde kalian etaratako argazkixa da. Honakuak ageri dira (ezkerretik eskumara): Renato Ariznabarreta, Venancio Iñurrieta, J. Artolazabal, (ezezaguna), J. Loyola (Argentina), Jesus Laskurain, Carlos Galarraga, J.F. Aizpuru "Atxito", Jose A. Oregi, J. Orbea, J. Gantxegi, J. Bolunburu, J. Sanz eta M.A. Areitio.

## Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

*Bi lagunendako  
afari mundial bat  
irabazi zeinke!!*

Deitu

**943 75 13 04** ra

edo e-mail bat bidal ezazu:

[pilpilean@euskalnet.net](mailto:pilpilean@euskalnet.net)

*Aurreko  
alean...*



**ERANTZUNA**  
Banketxeko  
errotuloa falta da

**IRABAZLEA**  
Eustakio Altuna



## MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

## ARRANO tabernia

Telefonoa 75 24 09

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK  
**etxera**

# LAZKAOTXIKI

## BAT-BATEKO SORGINA

**Xabier Amurizak**  
aukeratutako Lazkao Txikiren  
bertso eta irudi onenen  
bilduma.



**Xabier Amurizak abestuak**

Nork ez du Lazkao Txiki  
nolabait ezaguna  
ipuin, txiste, pasadizo  
marrakiz biziduna?  
Bertsolari jeniala  
artista euskalduna  
zorrotzean zorrotzena  
bigunean biguna  
hona haren bat-bateko  
sorgin-lanen bilduma  
atseginik sorginena  
eskainiko dizuna.

Xabier Amuriza

**abenduaren 16, 17 eta 18an**



**+6,95 €**

**HARPIDEDUNENTZAKO OHARRA:**

BERRIAko harpidedunek %20 merkeago erosi ahal izango dute 943 30 43 45 telefonora deituta. Eskaria egiteko azken eguna, abenduaren 12a.

**Laguntzailea:**

Lazkaoko Udala

Euskaldunok behar dugun **berria**

# GURE IRRATIA BIDE GURUTZEAN!!

**GURE ERRONKA:**  
EUSKARAREN BIZIRAUPENA EUSKARA GALTZEN ARI DEN EREMUAN  
GURE IRRATIAK FUNTSEZKO PAPERA DAUKA BIHAR EUSKARA BIZI DADIN  
LAPURDIN ETA EUSKAL HERRI OSOAN

Lapurdiko Herri Irratiak bere 23 urteko ixtorian  
aldaketa nagusia biziko du aurten:  
lokal berri bat eraikitzea doa  
eta zure laguntza baitezpadakoa du.

Ipar Euskal Herria euskara desagertzea onartzen ez dugulako, eskerrak zure laguntza premiatsuagatik jasotzeko.

Herritarren sustenguari jasotzeko:

-Ipar Euskal Herria: Crédit Mutuel: 15999 02277 00050514940 64

-Hego Euskal herria: Euskadiko Kutxa: 3035 0059 81 0590071330



## GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



**Lepoko minak**  
**Erreuma**  
**Erreabilitazioa**  
**Kirol osteko errekupezioa**  
**Tendinitisak**  
**Zaintiratuak**

**Ordutegia:**  
(goizez) 07:45etik 12:30etara  
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno  
Santa Ana 7  
Tel. 943750022

